

Mondragon Unibertsitateak berri du webgunea

2010/12/23

2010eko uztaila ezkerro, batzorde bat lanean aritu da, CodeSyntax enpresarekin batera, prestatzen Mondragon Unibertsitatearen birdiseinua. Batzorde horretan unibertsitate osoko ordezkariak izan dira. Lana ez zen makala, zeren, unibertsitatearen webguneaz gain, birdiseinuak eragin behar zien haren barruan dauden subsite edo azpiwebguneei, zortzi guztira: fakultateak, biblioteka, kirol zerbitzua, eta hiru graduondo.

Berrikuntzak

Webgune berriak hainbat berrikuntza ekarri du, batzuk begi-bistakoak eta besteak ez hain nabarmenak:

BIRDISEINUA Zuria eta berde korporatiboa nagusitu dira MUren webgune berrituan. **Webgunearen eremua zabalagoa da** lehen baino, hobeto egokitzen delako gaur egungo erabiltzaileen pantailietara. Horrek zabaldu egin du zuriaren eremua, eta pantaila garbiagoa egiten du. **Informazioa**, berriz, bi eremu nagusitan banatzen da orain: erabiltzaile arruntak zerrenda beltz batean aurkituko du informazioa; bertan ikasi nahi duenak, berriz, eremu berde bat izango du, bertan informazioa bilatzeko. Horrez gain, ezker aldean **laupabost informazio nabarmenduko dira**. Bestalde, uneoro **albisteak** erakutsiko dira. Eta horien eskuinean, **MUKomunitatea** joango da.

PLONE 4.0 Webgunearen birdiseinua baliatu da berau kudeatzen duen sistema ere eguneratzeko, Plone alegia, Edukiak Kudeatzeko Sistema librea. Aurrerantzean, bada, webguneak erabiliko du Ploneren azken bertsioa, 4.0.

MUKOMUNITATEA Edukiei dagokienez, hauxe da berrikuntzarik handiena webgune berrituan. Komunitate horren barruan, elementurik nabarmenena MUtebista izango da, berau beti egongo da-eta ikusgai unibertsitatearen webgunean. Horrekin batera, bi blog mota egong dira: korporatiboak, unibertsitateko lanekin lotuta, eta MUren lagunak, unibertsitateko langileen blogak, baina ez zuzenean eta beti unibertsitateari lotuak. Sare sozialek ere izango dute tokia komunitatean: bertan jasoko dira unibertsitateak dituen Twitter, Facebook, Youtube, eta Tuenti kontuak. MUKomunitatea bakarrik MUren webgunean agertuko da, baina fakultateetakoenetan ere sarbideak izango ditu.

